

Normalak

Zertarako azpimarratu gure emetasuna?” galdetzen du Katixak, eta nik ere behin baino gehiagotan egin diot galdera bera nire buruari: “Zergatik tematzen dira gure izen-abizenen ondoran *emakume* hitza idazten?”. Katixak normala izan nahi du, eta nik ere bai, baina ez dugu zorte hori ukan, emakume baikara medikuntzaren ikuspegitik behintzat. Emakume eta idazle izatea ez baita *normala*, zenbakiak hala erakusten dute: adin batek aurrera salbuespena gara.

Hau ez da gure plaza. Gizonezkoena da. Gizonezkoak dira editore eta idazle. Gu irakurleak gara. Gizonezkoak dira zirujau, gu zauri txikiak sendatzen ditugun erizainak gara. Gizonezkoak dira *chef*, gu sukaldari apartak gara. Gizonezkoak dira umorista, gu barre egiten dugunak gara. Gizonezkoak dira apaiz, gu katekistak edo kristauak gara. Gizonezkoak dira hegazkin pilotu, gu seme-alabak eskolara eramaten ditugun auto gidariak gara.

Ez naute inoiz gutxietsi, haatik emakumezko eta idazle –biak batean– izateagatik. Gremioko gizonezkoak aurrerakoiak dira, baina gizonezkoen artean hobeto konpontzen dira, izan ere, beste belaunaldi batekoak dira, “antigoalekoak”.

Bestalde, heterosexuala izateak gauzak zailtzen dituela sentitzen dut: badago arrisku potentzial infimo bat, Eros-erako zirrikitu bat (mamu hori *Gure Gauzak S.A.*n agertzen da papereraturik), eta horrek ere gauzak zailtzen ditu. Ez bada ni ere karamada gisa agertzen naizela, nahiz eta oraindik ez dut asmatu nola (zein mozorroekin –elastiko zabala/Lacostea eta mendiko botak/nautikoak?–, zein kodigorekin –futbola, txirrindularitza?–, zein diosial erabili behar nukeen –atzoko etapa ikusi zenuten? Zer moduz familia?–).



Zergatik sentitzen naiz hain ezeroso emakumez eta literaturaz hitz egiterakoan?

Nire burua ulertzen –justifikatzen?– ahalegintzen naiz:

1. Gizonezkoen beharra dut –publikatua izateko, irakurria, kritikatu, aholkatu–.

2. Ezin gizonezkoen etxean sartu, nirekin eta nire aurretiko emakumezko idazle

guztiekin zorrak dituztela oihu egiten. Ongi hezitakoa naiz. Xaloa. Lasaia. “Ez naiz borrokatzera etorri, zaudete lasai, idatzi besterik ez dut egin nahi, literatura da nire esparrua eta zuen laguntza behar dut. Idazterako ez, baizik eta beste guztirako” dio nire irribarreak.

3. Diskretuagoa izateko, susmo gutxiago pizteko, nire sexua ezabatzen dut: “Ikusten duzuen hau ilusio bat da, gizo-

nak, etxean bakarrik naiz emakume, edo hobe, hilabetean behin baino ez naiz emakume. Bestela, idazten ari naizenean, ez naiz ez emakume ez ezer. Eta idazten dudana ere, androginoa da. Ez zaitetze izutu” dio nire gorputzak.

4. Txoko bat lortu arte, isilik egongo naiz. “Gonbidatu bat zara, Eider, ez ahaztu. Onartu egin zaituzte, Eider. Eskertuta besterik ezin duzu egon. Zorretan zaudete” dio agian nire subkonszienteak.

5. “Kolaborazionista, zu ere horixe besterik ez zara, kolaborazionista zikin bat!” entzuten dut norbait garrasika.

Hemen eta orain, idazle *normal* izateko gizonezko izan beharra dago.

Guri gertatu aurretik, beste emakumezko ugariri gertatu zaio: artisau izan ziren baina sekula ez artista, jostun moda diseinatzaile baino lehen. Eta gu, batzuentzat oraindik idazlesak gara, baina ez idazle.

Batzuentzat, oraindik. ■

Hemen eta orain, idazle *normal* izateko
gizonezko izan beharra dago